



PAYADORE ARGENTINAR BAT PRIMIZIAN ELGOIBARKO HERRIKO ANTZOKIAN ESKAINIKO DEN “BERTSOTRANPAK” IKUSKIZUNEAN

ELGOIBARKO EUSKAL JAIEAN MENDEURRENA (1907 - 2007) 100 Euskal Jaiak

Bertsotranpak

Ekainak 1, ostirala
22:00etan
ELGOIBAR
Herriko Antzokia

Aktorea: Ander Lipus
Musikaria: Aitor Agiriano
Bertsolariak: Andoni Egaña
Xabier Paya
Fredi Paya

ELGOIBARKO UDALA **Lanku**
Lanku

Elgoibarko Udalaren Euskara Batzordeak antolaturik, eta Euskal Jaien mendurrena gogorarazteko prestatutako egitarauaren baitan, datorren ostiralean, ekainak 1, gaueko 22:00etan, “Bertsotranpak” izeneko ikuskizun berezia izango da, Herriko Antzokian, Andoni Egaña, Xabier Paya eta Fredi Paia bertsolarien, Ander Lipus aktorearen eta Aitor Agiriano musikariaren eskutik..

Horiekin batera, Argentinako payadore bat arituko da, gure herrian inoiz ikusi gabeko ikuskizun bat eskainiz. Payadoreak Argentinan, eta Hego Amerika osoan, inprobisatuz aritzen diren kantari-errezitatzailak dira.

Bertsozale Elkartearen Lanku zerbitzuak sustatutako lan honetan hiru arte diziplina uztartzen dira: bertsoa, musika eta antzerkia. Ekitaldiaren planteamendua, berriz, benetan originala da. Antzerki autentikoaren espiritualtasuna berreskuratu nahi du, bat-batekotasunaren sorkuntza ahalmenaz baliatuta, eta musikaz eta hitzez egoki jantzita.

Hiru ordu irauten duen ikuskizun honetan, ikusleek desafio bitxi bat izango dute aurrez aurre. Egañatarren eta Paiatarren arteko desafioa, hain zuzen ere. Bi bertsolari, Andoni eta Euxebio (Ander Lipus) Egaña, beste bi bertsolarien aurka (Fredi eta Xabi Paia) ikusi ahal izango ditugu, txapela jokoan dutela.

Ekitaldi honetarako sarrerak Kultur Etxean daude salgai, goizez Euskara Sailean, eta arratsaldez, Gazte Informazio Gunean. Sarrera bakoitza bost eurotan salduko da.